



BARREN

TOKIKOM



Everest begiz jota

Alex Txikon eta Gotzon Zulaika



- KOLTXOIAK • KANAPEAK
- SOMIERRAK • BURKOAK
- NORDIKOAK
- OINARRI TAPIZATUAK
- ATSEDENERAKO GUZTIA
- BEREZKO FABRIKAZIOA



**Bernardo Ezenarro, 17
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 30 31
www.decotena.com**

DECOTENA, S.L.



Barren 25 urte



BARREneko txori txikia

Kolaboratzaile finak izan ditu BARREnek 25 urtean, baina beharbada finetan finena izan zena ekarri dugu gaur orrialde honetara: Juanito Gorostiza (Elgoibar 1926-2010). Urte askotako fidelotasuna eskaini zion agerkari honi Gorostizak. Erretratu zaharrak inguratzen eta 'Nola aldatu diren gauzak' atala osatzen lagundu zigan eta baita bestelako ataletarako protagonisten kontaktuak lortzen ere. Sekula ezingo diogu eskertu bizi zen artean proiektu honen alde egin zuen guztia.



A inhoa Lodoso eta Jasone Osororen garaian hasi zen Juanito Gorostiza BARREnekin kolaboratzen. "Gogoratuz atalerako nire aita zena naren rekordarioa egiteko eskatu zidaten lehenengo. Gero, gehiago egiteko eskatu zidaten eta holaxe kateatu nintzen", gogoratu zuen berak 2004an, BARREn 500. zenbakian. Argazki zaharrak lortzeko

eginkizuna bere egin zuen Juanitok, eta hil artean astero-astero etortzen zitzaigun erredakziora erretratu bat paparran hartuta. Eta argazkiarekin batera, jakina, argazkikoen izen-deitura guztiak eta argazkiaren inguruko hainbat jakingarri ere ekartzen zizkigun paperean eskuz idatzita. Fina zen, eta ez zuen argazkiko denak identifikatu arteko onik izaten. Izaten zen trabatzen zitzaionik eta han ibiltzen zen jira-bueltan, batari eta besteari galdetzen. Sarri, erredakziotik bertatik ere aritzen zen telefonoz batarekin eta bestearekin, informazio bila batzuetan eta argazkia publikatzeko baimen eskean besteetan. "BARREN herriaren alde ari da, eta lagundu egin behar diogu". Horietxek izaten ziren limurtu behar zuen hari esaten zizkion lehenengo berbak. Askok BARREneko lantaldekotzat ere bazuten kalean, eta hala genuen guk geuk ere, baina BARREneko *alkahuetea* eta errekadista zela esan ohi zuen berak berezkoa zuen graziarekin. Eta hori ere bazen, jakina. Mila eta bi kontu ekarri ohi zizkigun kaletik erredakzioan lantzeko eta dozenaka izen-abizendun proposatu zizkigun elkarrizketatzeko. Bere azkeneko makalaldian ere sarri deitu izan zigan ospitaletik bertatik ere, hau edo beste esateko.

Errosario kalekoa zen Juanito, kale-kalekoa, eta inork gutxik ezagutzen zuen Elgoibar eta ezagutzen zituen elgoibartarrak berak bezain ondo. Ia 40 urtean izan zuten Gorostizatarrek taberna Errosario kalean eta tabernaren parez pare ile-apaindegia eta bietan



2004. urtean Juanitori egin genion elkarrizketa luzea.

aritu zen lanean bera. Realzale amorratua zen, eta kirolzale sutua, eta izugarri disfrutatzen zuen kirolari elgoibartarren lorpenekin. 2010eko irailaren 17an, omenaldi xumea egin genion Kalebarren plazan, *Ni ere banaiz BARREN!* kanpainaren barruan eta orduan Irati Agirreazaldegi agerkari honetako kazetariak kantatu zituen bi bertsoetako bat ekarri dugu hona, esker onez:

*BARREnerako bisita
asteroko errito
halako laguntzailea
nork ez izan begiko
zure txokotik urruti
juan arren, Juanito
gure barren-barrenian
egongo zara betiko.*



Ezkerrean, Agurtzane, alaba, BARREnek egindako opariarekin. Eskuinean, dantzarien agurra Juanitoren emazte Consuelo Otaegi eta alaba Agurtzaneri.



ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

Sororitatea

// Ahizpatasun: feminismoan, emakumeen arteko elkartasuna eta aliantza. 'Sororitate' ere esaten zaio". Berriaren estilo liburuko definizio hori izan da azken aldian garrantzi berezia hartzen ari den 'sororitate' terminoari eginiko euskarazko erreferentzia bakarrenetakoa. Aurrez hitz hori entzun duzuenok, ziur aski, ez zenuten euskaraz entzungo, eta kasualitatez, hala izan bada, mugimendu feministaren diskurtsoan izango zen, ez euskara formalaren eremuetan.

Hitz horrek hedabide eta hiztegietan duen agerpen eskasa ikusirik, badirudi

euskarak nolabaiteko zailtasuna duela inguruko hizkuntzen terminoak beregantzeko, eta guztiz beharrezko ikusten dut sororitatearen antzeko termino eder eta feministak zabaltzeko esfortzu berezi bat egitea. Agian ezjakintasunak eraman gaitu sororitateari erreferentziarik ez egitera, baina ezin esan daiteke horretarako tresnarik ez dugunik, Euskal Herriko mugimendu feminista inoiz baino indartsuago ageri baita; edo agian gehiegi heltzen diogu zuzentasunari, hona adibide gisa sare sozialetako elkarriketa labur bat: "Zein termino litzake egokiagoa, sororitate, ahizpatasun, sortasun?"

Dena dela, kontua da egunerokotasunean emakumeon artean sortzen den konplizitate horri ez diogula izenik jarri, edo gutxienez, izen posible hori ez dela gehiegi zabaldtu. Oso zaila da terminoaren berri izan gabe geure arteko elkarta-

sun hori materializatzea, geure bizitzak duintzeko eta zapalkuntzari aurre egiteko tresna bihurtzea.

Txikitik aldatzen omen dira gauzak, eta beraz, "sororitate" edo "ahizpatasun" terminoak Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan berehalakoan ikusiko ez baditugu ere, ekar dizagun egunerokotasunera, kontzeptua existitzen baita, maiz sentitzen baitugu lotura berezi hori. Beraz, gaezan etxerantz bidean gurutzatzen dugun pertsona emakumea dela ohartzeak dakarren lasaitasunagatik, tabernan seme-alabei bularra ematen dien ama ausartarekiko sentitzen dugun harrotasunagatik, gutako edozein ukitzen dutenean guztiok ukitzen gaituztela batera oihukatzeak adierazten duen elkartasunagatik, eta atzoko egunez lantokiak eta amantalak utzi zituzten borrokalariari gogoz emandako besarkadagatik, sororitateak merezi du gure hizkuntz komunitatean lekutxo bat, ezta?

"Egunerokotasunean emakumeon artean sortzen den konplizitate horri ez diogu izenik jarri"

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Hiztegiaren Topagunea</p>	<p>Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR 943 744 112 Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainarra Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Amaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Ariola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>EUSKAL HERRIA ELGOIBARKO UDALA</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>MENDAKOIA Gipuzkoako Foru Aldundia</p>  <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA</p> <p>(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua</p>
---	--	---



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ERRAUSTE PLANTEK ERAGINA DUTE OSASUNEAN

Pasa den astean, Gipuzkoako Medikuen Elkargoak antolatuta, Zubietan (Donostiako lurretan) egin asmo den errauste plantaren ingurumen baimen integralari buruz Eduard Rodriguez Farre eta Fernando Palacios zientzialariek (CSIC Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusian lanean ari dira) landu berri duten txostena aurkeztu zuten. Baimen horren gabeziak agerian utzi ditu aurkeztu duten lanak. Lan hori baimen integratuaren aurka EAEko Justizia Auzitegi Nagusian abian den auzibidean aintzat har dadila eskatuko du GuraSOSek.

Baimen horretan ez dira aintzakotzat hartu literatura zientifikoan errauste plantetako emisio gisara zerrendatuta dauden hainbat produktu; aipatu ere ez dira egin. Metal astunak, bentzenoak eta produktu organikoak daude, besteak beste, tartean. Ez dira kontuan hartu errauste plantek zenbait minbizi klase areagotzeko arriskua handitzen dutela erakusten duten ikerketa zientifikoak ere.

Martxoaren 4an Arantxa Iraola *Berria*-ko kazetariak Eduard Rodriguez Farre elkarrizketatu zuen. "Beti esaten da egitera doazen planta berria zoragarria izango dela" zioen izenburuak. Merezi du irakurtzea. Zientzialariei aditzeko eskatzen zaigu, garbi baitago errauste plantek eragina dutela gu guztion osasunean. Ez al da kezkatzekoa? Niretzat bai.

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



LEHIAKETA!

25. urteurrenaren harira, 'Barren beti gainean' argazki lehiaketa antolatu du BARREnek.

Gaurtik apirilaren 13ra arteko epea daukazu BARREN zenbaki batekin argazkia ateratzeko.

Parte hartzen duzuen guztion artean Emigorak emandako bi otar zozketatuko ditugu, eta apirilaren 20ko zenbakian emango dugu irabazleen berri.

Argazkiak bidali honako helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus
Argazki guztiak www.barren.eus webgunean zintzilikatuko ditugu.



Espainiako Geografia Elkartek Eñaut Izagirre partaide duen 'Incognita Patagonia' saritu du



Beste sari bat jaso du Eñaut Izagirre geografo elgoibartarra partaide duen *Incognita Patagonia* proiektuak. Ibai Rico gasteiztarrarekin eta Evan Miles estatubatuarrekin batera Txileko Patagonian, Hoste uhartean, esploratu gabeko lur eremuetan egin zuten espedizioa eta 2017ko Bidaia Onenaren Saria eman dio Espainiako Geografia Elkartek. Eskalada, esplorazioa eta zientzia bateratu ditu *Incognita Patagonia* proiektuak. Berrogei egunez belaontzi bat babesleku zutela, Hoste uharteko glaziarren eta izotzen atzerakada konfirmatu zuten espedizioko kideek, eta inguruko estazio meteorologikoen sarea martxan jartzeko tartearen erdia hartu zuten.

Bidaiari, ikerlari, enpresa zein erakundeek geografia ezagutzak handitzeko eta zabaltzeko eginiko lana aitortzen dute sari hauekin; baita ikerkuntza, zientzia, kazetaritza eta kulturarentzako baliagarriak diren bidaia proiektuei babesa eman ere. Geografia elkarteak nabarmendu du esploratu gabeko Cloué Iztz-eremua zeharkatu eta kartografiatu zutela, bidean topatu zituzten arrakalak, er-tzak, fiordoak eta kostalde guztia ikertuz.

Erraketistei buruzko erakusketa, dokumentala eta mahai ingurua izango dira datorren astean

Raketistak erakusketa antolatu dute Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Raketistak Lehen eta Orain Kultur eta Kirol elkarteak. Martxoaren 12tik 26ra bitartean Olaizaga Kiroldegiko kafetegian egongo da ikusgai. Erakusketaren aurkezpena, astelehenean, martxoaren 12an, 19:00etan, kafetegian bertan. Asteartean, martxoaren 13an, 19:00etan, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolan, Jon Juanes Iragorriren *Raketistak Lehen eta Orain* dokumentala eskainiko dute eta ekitaldiaren amaieran mahai-ingurua ere izango da.

Baserritarrek izena eman behar dute Trinitateetarako

Maiatzaren 26an, larunbata, Elgoibarko Udala eta Debemen elkarteak antolatuta, XVII. Trinitate azoka izango da Elgoibarren. Debemen elkartetik jakinarazi dute Elgoibarko baserritar guztiak gonbidatuta daudela azokan parte hartzera. Horretarako, Debemenera deitu beharko dute aurrez izena emateko: 943 744 067. Azken eguna apirilaren 6a izango da.

Martxoaren 20ra arte eska daitezke Errigorako produktuak

Martxoaren 6an hasi zen Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura Errigoraren kanpaina *Zubi bat sukaldera* lelopean. Martxoaren 20ra arte egin ahal izango dira eskaerak. Oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak eskatu ahal izango dira ekoizlearen jatorrizko prezioan. Eskariak egiteko hainbat aukera daude: eskuorriak Elgoibar ikastolan eta AEKn aurki daitezke; Elgoibarko Izarran 943 741 626 telefonon edo *elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus* e-postan; elgoibar.errigora@gmail.com e-postara idatzita; edo internet bidez, *www.errigora.eus* helbidean. Hor dago kanpainari buruzko informazioa ere.

Bigarren eskuko azoka domekan Mendaron

Mendaroko frontoian bigarren eskuko azoka egingo dute domekan, martxoaren 11n 11:00etatik 14:30era bitartean. Trastelekuan gordetzen diren gauzei bigarren aukera bat emateko asmoz Mendaroko hainbat lagunek antolatu dute azoka hau. 25 postu egongo dira eta askotariko gauzak salduko dituzte: haur eta helduen arropak, jostailuak, CDak, binilozko diskoak, liburuak, musika tresnak, ume txikien gauzak (aulkietarako zakuak, poltsak...) eta etxeko apaingarriak.

Elgoibarko Udalak irudi korporatiboa aldatu du



Irudi korporatiboa estreinatu du Elgoibarko Udalak. Udalaren ustez orain artekoa baino marka modernoagoa, hurbilagoa eta xumeagoa da, eta udal erakundearekin lotutako ekimen, zerbitzu, eraikin eta seinaleak identifikatzeko balioko du. Ane Beitia alkatearen esan du: "Gaur egun kontzeptu eta baloreak identifikatzerakoan erakunde baten irudiak duen garrantziaz kontziente izanik, beharrezkotzat jo dugu Udalaren marka berritzea". Baina irudia eguneratu arren, nortasunaren esentzia mantenduko dutela uste du.

Erakundearekin lotutako zerbitzu, ekimen eta proiektuekiko herritarrek duten ezjakintasunak eragin du marka korporatibo baten beharra. Izan ere, elgoibartarrek Udala era egokian identifikatzeko eta nabarmentzeko beharra somatu dute arduradunek. Horretarako, "diseinu xumea, zuzena eta gogoratzeko erraza bilatu dute; konfiantza sorrarazten duen marka", esan dute Gobernu taldeak.

Jatorrira itzulera

Irudi berria jatorrizko armariaren xumetasunera itzuli da. 1948ko jatorrizko ezkutuko elementuetan oinarritua, azken mendeetan erabilitako Elgoibarko armari heraldikoaren adierazpen sinplifikatua da. Egungo komunikazio arloko beharrezko arbera egokitu eta lengoia bisualaren bidez, "Udalaren nortasunaren transmisioan pentsatuz" diseinatu dute ikuspegi heraldikotik oso ortodoxoak ez diren arren, ikuspegi praktikotik egungo euskarrietara aplikatzeko. Horretarako, gazteluko aurpegiatariko bi kendu dituzte eta leiho kopurua bira murriztu, hiru dorreak mantenduz.

Banderan eta Udal estandarteetan erakusten den armari ofiziala, [armaria bertsio barrokoan], gaur arte komunikazio elementu guztietan erabili dena, Alkatezarekin zuzenean eta eskusiboki lotutako protokolo eta harreman publikoen jardunetan erabiliko da.

Irudi berriaren sortzea, komunikazio euskarri desberdinetan identitate berriaren erabilera egokia zaintzea eta irudiaren proiektio bakar, koherente eta argia bermatzeko eskuliburu ere egin dute. Marka berria, piskanaka bistaratuko dute Udaleko sail guztietan, euskarri fisikoetan eta digitaletan.

Elgoibarko Bildu ez dago ados hondakinen gaikako sistema berriarekin

Hondakinak gaika biltzea ezinbestekoa izan arren, EH Bildu ez dago ados Elgoibarko Udalak eta Debabarreneko Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berriarekin. Beren esanetan, aurreikusita dago hondakinak gaizki bereizi eta botatzen dituztenek gehiago ordaindu beharko dutela, baina horren ardura mankomunitateari uzten zaio, eta hori ez zaio zuzena iruditzen kontuan hartuta Udala dela kobratzen duena. Bestalde, herritarrek hondakinak behar bezala ontziratzen dituztela jakiteko txipa erabiliko da, baina hainbat tokitan errefuxarako orain arteko ontziak mantenduko dituztenez, zaila izango dela aurreikusi dute. Horrez gain, ingurumen gaietan kanpaina eskasak egin direla uste dute. Horregatik, EH Bilduk eskatu du gai honen inguruko neurri zuzentzaileak hartzea, eta uste dute horretarako leku egokiena Udal talde guztiek osatzen duten hondakinen mahaia dela.

'Txertatu merkaturan' egitasmoan parte hartzen ari dira hamabost gazte

Debabarreneko 18 eta 29 urte bitarteko hamabost gazte (horietatik hiru elgoibartarrak eta bi mendararrak) ari dira IMHn, biltegi-lanetarako trebatzen, *Txertatu Merkaturan* egitasmoaren baitan. Debabarreneko zortzi Udalek eta Debegesa garapen agentziak sustatu dute egitasmoa eta helburua da ikasketak utzi dituzten eta langabezian dauden 16 eta 30 urte arteko gazteei gizarte- eta lan-aktibazioa jardueretan parte hartzeko aukera eskaintzea, benetako lan-esperientziak izan ditzaten.



“Pena handia, baina lasaitua hartu nuen Txikon behera zetorrela jakin nuenean”

► GOTZON ZULAIKA MENDIZALEA

Alex Txikon mendigoizale bizkaitarrak Everestera egindako espedizioa gertutik ezagutzeko aukera izan du Gotzon Zulaika mendarorarrak. Everesteko oinarritzko kanpalekuan Txikonekin eta haren taldekideekin bizitako uneez jardun gara harekin.

AINARA ARGOITIA



Gotzon Zulaika, Txikonen sherpekin.

◆ Nola sortu zitzaizun Everesteko oinarritzko kanpalekuan Alex Txikonen espedizioarekin egun batzuk bizitzeko aukera?

Alex Txikonen sare sozialak kudeatzen dituen lagun batek proposatu zidan joatea. Ustekabeko kontua izan da, joan baino hilabete aurretik komentatu zidalako, baina izugarritzko esperientzia izan da. Otsailaren 9an irten ginen Bilbotik zazpi lagun, ni ez beste guztiak Txikonen gertukoak. Bilbo-Istanbul-Katmandu bidaiaria egin genuen, eta otsailaren 10ean iritsi ginen Katmandura. Mendebaldekoen begiz ikusita, amaitu gabeko hiri bat da Katmandu, Himalaiari lotutako turismoan oinarritzen

den ekonomia duena. Eta horregatik seguruenik oso mendebaldutako hiri da, Nepal izanda ere. 2015ean lurrikara batek astindu zuen inguru hori, baina ondorioak ez dira igarri ere egiten, hango eraikuntzak bestela ere prekarioak direlako. Bi gau egin genituen han, eta handik Luklara abiatu ginen, abionetan. 1.000 biztanleko herria da Lukla, eta Everest igotzera doan jende guztia handik pasatzen da, handik hasten delako oinarritzko kanpalekurako trekkinga. Munduko aireporturik arriskutsuenetakoa du. Hegazkinek lur hartzeko pistak 450 bat metro ditu eta bukaera amildegia bat da. Horri gehitu Lukla 2.700 bat metrora da-

goela, mendi handiz inguratuta. Emozioa badu kontuak.

◆ Bidean zerk harritu zintuen gehien?

Bederatzi egunetan egin dugu oinarritzko kanpalekura arteko bidea, mendiko gaitza saihesteko. 90 kilometroko bidea da, eta egunetan 9-10 kilometro egitea aholkatzen dute. 9 egunetan 7 leku ezberdinetan lo egin dugu, aklimatatzeko. Namche Bazarren egin genituen bi gau eta harrigarria egin zitzaidan helikopteroz edo oinez bakarrik iritsi daitekeen leku batean halako tamainako herria topatzea. Trekkinga bera jende askok egiten du, bereziki udan, eta ikustekoa da zenbat zikikeri dagoen bazterretan, turistek botata.

Gotzon Zulaika, Everesteko oinarritzko kanpalekuan, espedizioeko lagunekin, tar-tean Alex Txikon bera.

Ikustekoa da, ere berean, zamalariak nola ibiltzen diren. Gureek 30 kiloko motxila bana eraman dute, baina 100 kilora artekoekin ikusi ditugu mutilak, oso gazteak denak. 15 urte izan behar dituzte gutxienez, baina niri oso umeak iruditu zaizkit denak. Bidean herrixka edo auzo ugari daude, eta denda txikiak saldoka. Everest gaina ere ikusten da, jakina, eta inpresioa egiten du, nahiz lehenengo begiratuan ondoko batzuk handiagoak iruditu. Hori bai, zortekoak izan gara gailurra ikusi dugulako, gehienetan estalita egoten delako.

◆ Noiz iritsi zineten oinarritzko kanpalekura? Zer topatu zenuten?

Otsailaren 20an iritsi ginen Everesteko oinarritzko kanpalekura, bezperan 5.700 metroko Calaphatar gailurra eginda. Calaphatarren igarri nuen nik gehien alturagatik itolarria eta buru-galtze hori, baina zorionez ezer hartu beharrik gabe pasatu nuen. Gure oinarritzko kanpalekua [Txikonen espedizioarena] jatorritzkoa dagoen lekutik ordubete ingurura zegoen, Everestik gertuago. Handik gora eskalada hasten da. Udan, itxuraz, kaosa izaten da, baina orain bakar-bakarrik egon gara gu han. Berez, oinarritzko kanpalekua ez da ezer: lau kanpin denda, izotz eta harri arte batean. Gu iristerako, espedizioeko hamabost lagun zeuden han, lau euskal herritar eta hamaika nepaldar: bi *ice doctor* (egunero Khumbuko izotz-jausia, oinarritzko kanpalekutik 1. kanpalekura bitartekoa, ekipatzeko ardura dutenak), lau-bost sherpa, eta sukaldari laguntzaileak. Bi denda handi daude, sukalde eta jangela funtzioa betetzen dutenak, eta gero kanpin denda txikiak bueltan, lotarako. Jatorduak elkarrekin egiten genituen guk.

◆ Espedizio handi baten lekuko izan zara? Zer arnastu duzu han?

Giro ona, eta une batzuetan, tentsio handia. Alexek sekulako erronka zeukan, neguan eta oxigenorik gabe Everest igozteaz, eta gu hara bezperan iritsi ginen. Hil ala bizi zihoan, eta ni ez beste guztiak bere gertuko lagunak izanda, atera kon-



tuak han zelako tentsioa zegoen. Nik bera ikusi dut trankilen. Oinarritzko kanpalekura bidean gindoazela deitu zigun berak esanez 21ean abiatuko zela gailurrerantz, hiru egunerako eguraldi ona iragarria zegoela-eta, eta bila irten zitzagun gero bidera. Momentu hori hunkigarria izan zen. Kontuan izan behar dugu Alexek hilabete eta erdi pasa zeramala han, urtarilaren 7an iritsi zirelako, eta bihar-munean abiatzen zela aurrez beste inork egin ez zuena egitera.

◆ Zer egiten da bi hilabetez 24 orduan?

Egon. Ez dira handik ia mugitu ere egin. Hori bai, Alexek eta Ali Sadpara, Nuri eta Temba sherpek Pumori (7.161 metro) igo zuten.

◆ Nolakoa izan zen gailurrera irten aurreko eguna?

Elkarrekin bazkaldu genuen. Makarroiak jan genituen okelarekin, eta arratsaldean, goxoki pila bat. Karta jokoa eman genuen arratsaldea eta bi orduko bilera egin zuten gero beraiek, azkeneko kontuak lotzeko. Eguraldi ona egin zigun, baina hotz: egunez, 10 bat gradu zero azpitik, eta gauez, 22 bat zero azpitik. Oso lasai ikusten nuen Alex, lasaiegi ere bai, nik neukan kezkarako. Gu ondo egoteak kezkatzen zuten gehiago. Gorako janzen ere ikusi nuen, lasai. Bezperan inprobisatu zuten sudurrerako estalkia ere. Babesleek egina zioten bat neurrira, baina konturatu zen ez zitzaiola balekoa-edo, eta kameraren estalkiarekin eta zinta isolatzailearekin sortu zuten bat. Sekula ez nuen irudikatuko maila horretako espediziokideak halako eskulanetan ikustea.

◆ Nola bizi izan zenuen irteerako unea?

9:00etan abantatu zen Txikon, sasoi-

koen zeuden bi sherpekin: Ali Sadpara eta Chhepalekin. Aurretik abiatuak ziren beste lau. Bera lasai zihoan; kezkatuago geunden gu. Izotz-jausiraino lagundu ginen eta agurtu ginen momentua hunkigarria izan zen. Barruak ere buelta eman zidan. Han ez dago bromarik. Baina berak beste kezka batzuk zituen. Khumbun gora eskalatzen zihoala ere deitu zigun, mendiko gaitzak jota helikopteroan behera jaitsi ziren bi lagunaz galdetza eta haien bidaia nola antolatuta azaltzen. Dena dauka kontrolpean, denekin akordatzen da. Tipo lehiakorra da, burugogorra, gertukoa, bromazalea, argia eta dena ematekoa.

◆ Zer sentitu zenuen buelta ematera zihoala jakin zenuenean?

Pena handia, baina lasaitu izugarria ere bai. Jakin zuen egoera hartan sasoiaren atzera egiten, eta hori gauza handia da. Behera gentozela deitu ziguten oinarritzko kanpalekutik esaten Alexek buelta eman zuela. '70 kilometro orduko abiadurako haizea hegoaldeko lepoan, eta gailurrean, orduko 100 kilometroko ufadak. Bidean norbait galdu nahi ez badugu, buelta eman behar dugu', zioen Alexen mezuak. Momentu kritikoak bizi izan genituen, aurretik zihoazen beste lau sherpek itzalita zutelako irratia eta ezin zutelako haiekin harremanetan jarri. Txarrena ere pentsatu genuen. Bi orduz ibili ziren oinarritzko kanpalekuko lagunak haiei deika. Alex zegoen lekutik 100 metro gorago zeuden, baina... Katmandun elkartu ginen gu Alexekin berriro. Eta han esan ere egin zigun ia ezinezkoa ikusten zuela orain bere buruari jarri zion erronka betetzea. Ginda falta izan zaio, baina izugarria izan da.

“Odol emaileek itzuli didate bizia”

► ANDER URAIN

Odol-emaileen elkarrekin hartarazi dute odol premia handia dagoela eta odola ematera deitu dituzte herritarrak, batez ere gazteak. Gure gaurko protagonistak, Ander Urain mendaroarrak, 20 urte ditu, eta bat egin du deialdiarekin. Kolitis ultzeraduna diagnostikatu zioten duela hiru urte, eta joan zen urteko udan ebakuntza egin zioten arte, odol asko galdu zuen; Eta baita jaso ere, jakina. Orain, bere kasua kontatzea erabaki du, bere adin tarteko gazteen kontzientzietan eragiteko. Aurkezpenean bertan esan du odol-emaileek bizia itzuli diotela eta esker ona agertu die aldiro-aldiro odola ematen duten guztiei. “Odola, baina, egunero behar da, eta asko gainera, eta garbi izan behar dugu keinu txiki batekin bizitzak salbatzeko aukera daukagula. Aukera duzuenok, ez egin dudarik: eman, premian dagoenak eskertuko dizue-eta”, dio.

- AINARA ARGOITIA -

Ander Urainek 20 urte ditu, baina badaki senperrenak pasatzea zer den. 17 urte zituela, Batxilergoko bigarren urtea egiten ari zela, kolitis ultzeraduna diagnostikatu zioten, pancolitisa zehatzago izate aldera [heste lodi osoari eragiten dio], eta gaixotasunak gorriak pasatu arazi dizkio. “Hiru urte luze izan dira, eta sekulakoak pasatu ditut. Izugarritzko mina, ezelako botikek baretzen ez zidatena”. Hesteetako hantura gaixotasuna da kolitis ultzeraduna, heste lodia estaldurari eta ondesteari eragiten diona. Hesteak handitzean, gaixoak ultzerak izan ohi ditu koloneko mukosan eta ondestean, eta horrek, jakina, eragin zuzena du gaixoaren egunerokoan, eta nola ez, bizi-kalitatean, besteak beste odol asko galtzen delako.

“Ezin nuen ezer egin. Egunero galtzen nuen odola eta indarririk ez neukan ezertarako. Baina hori baino okerragoa izan da mina. Sekulako tripako minak izan ditut, zerbait barrua jaten ari zitzaidala pentsatzerainokoak”, dio. Iazko udan ebakuntza larria egin zioten, beste ezerk ez zuelako sendatzen. “Orain bai nagoela ondo. Oso ondo. Hau jakin banu aurretik... Baina ebakuntza azkeneko aukera zen. Hala esaten zidaten”. Gaixo egon den denboran, odol asko galdu du Anderrek, eta asko jaso ere bai. “Ez dakit zenbat sartuko zidaten, baina asko izan behar da derrigor. Litro erdiko poltsak izaten zirela uste dut, eta hiru ere hartuta daukat ekinaldi bakarrean. Gogorra da odola hartzea bera, kalte



ere egin diezazukelako, baina edonola ere, nik argi daukat odol emaleek bizia itzuli didatela. Ez gara konturatzen odola zein premiazkoa den eta ni neu ere ez nintzen kontziente premia izan nuen arte, baina orain garbi daukat odola ematea bizia ematea dela. Eman zutenei esker nago ni gaur nagoen moduan”.

Sabelaldeko mina eta kolikoak sarri izaten zituen Urainek eta komunera joaten zen aldiro galtzen zuen odola. Eta horrek ez zion bizimodu normala egiten uzten. Bere sasoiko mutiletan hemoglobina 13:15 g/dl-ko baloreetan izatea da normalena, baina berak 7-9 g/dl artean izaten zuen, etengabe galtzen zuelako. Eta halakoetan, ingresatzen zuten, sartzen zioten odola eta burdina, ematen zizkieten botikak eta egun batzutura etxera bidaltzen zuten, “hainbestean”, botikek efektua egiteko denbora behar zutela esanda. Baina etxera itzuli, eta luze ez zela han zen berriz ospitalera joan premian. “Horrenbeste odol galtzen nuen beti nengoela anemia handiarekin. Ez neukan indarririk ezertarako. Kirola egiteari laga nion, eskilara gutxi batzuk igotzeko ere ez nintzelako gauza. Ez nintzen ezer egiteko kapaz. Gainera, sarri joaten nintzen komunera, eta ezin nuen nire lagunen martxa jarraitu. Horrek uste baino gehiago mugatzen ninduen. Mendaron bertan ibiltzen nintzen, baina kanpora irteteko traba handiak nituen. Min handia ere izaten nuen, eta lo egin ezinda pasatzen nituen gau asko, ordubete edo bi bakarrik deskantsatuta”. Bizitza “goitik behera” aldatu zitzaion.

Ospitaleratzeak ere gero eta sarriagoak ziren. Astebetekoa izan zen Mendaroko ospitalean egin zuen lehenengo egotaldia, baina egoeraren larria ikusita, Donostiako Ospitalera bideratu zuten gero bere kasua, eta geroztiko egonaldi guztiak han egin zituen. Bigarren ospitaleratze aldia izan zuen luzeena, hilabete ingurukoa, baina denak batuta hiru hilabete baino gehiago egin zituen ospitalean. “Ez dut sekula ahaztuko. Lasaigarri denak probatu nituen, baita morfina ere bai, baina niri ezerk ez zidan mina kentzen. Entxufatuta pasatzen nuen eguna, eta jana ere zainetik sartzen zidaten, besotik”. Botikekin saiatu ziren lehenengo medikuak Urairen gaixotasunaren sintomak arintzen, baina botikentzako baino gehiago zen berak zuena. Sendagai biologikoekin saiatu ziren gero. Iturri biologiko batetik eratorritako eta sintetizatutako printzipio aktibo bat edo gehiago dituen sendagaiari esaten zaio sendagai biologikoa, eta berez, ohiko botikak baino eragin korragoak dira, baina Uraini albo-ondorioak sortu zizkieten. “Lehenengoak, alergia moduko bat sortu zidan, bigarrenak birrikak itxi zizkidan eta hirugarren klase bat ere probatu nuen, baina ez zuen emaitzarik eman. Kirofanora sartzea beste aukerarik ez zitzaidan gelditzen beraz”. Iazko udan egin zioten ebakuntza eta heste lodi osoa kendu. Ebakuntza luzea eta konplikatu izan zen, zazpi bat orduko. “Heste lodi osoa falta dut orain. Heste mehearekin heste lodi faltsu moduko bat sortu zidaten, erreterborio esaten diotena, eta harekin bizi naiz. Garai batean, hestea kentzen zizutenean, poltsa jartzen zizuten bizi osorako, baina zorionez nik ez daukat halakorik. Minik ez daukat eta orain bizitza normala

egiten dut hein Batean. Indarra hartzen ari naiz eta ezin ditut oraindik gauza batzuk egin, baina ari naiz buelta ematen. Garbi daukat nire gorputza ez dela zurea bezalakoa, azken batean nik falta dudalako gizakiok jatekoa kanporatzeko daukagun organo hori eta ondoez gehiago izan ditzakedalako”. Jatekoa zaindu beharra dauka, baina gutxienez ez du botikarik hartu beharrik eta hori bada nahikoa, egunean sei-zazpi bat hartzen zituenarentzat. “Gosariarekin batera lau pilula hartzen nituen, bazkariarekin bi, eta afariarekin batera beste bat edo bi”. Urainek ez du senda-agiririk jaso, gaixotasun kronikoa delako berea, baina ebakuntza egin ziotenetik, “sendatuta” sentitzen da.

Kontzientiaziorako deia

“Odola ematera dei egingo nieke guztiei. Ospitalean odola sartzen zidatenean sekulako bultzada ematen zidaten. Tripako minak eta abarrak izaten nituen, baina behintzat hilabetez gai izaten nintzen zerbait egiteko. Nik neuk ezin dezaket odolrik eman, baina lagunei-eta esaten diet, hemen inork ez dakigula noiz egongo garen odol premian, eta ahal dutenean, emateko, ordu erdiko keinu txiki horrekin bizitzak salbatzen direlako”. Herriarri kontzientzian eragin nahi du Urainek bere kasua kontatuta, iruditzen zaiolako ez garela behar bezain kontziente odola ematearen garrantziaz. “Ezta urrutitik ere! Gertutik tokatzen zaigun arte, guk geuk edo gure gertuko norbaitek odol premia izan arte, ez gara konturatzen, eta iristen da ostirala, iristen da odola emateko eguna, eta halako alferkeri bat sartzen zaigu. Eta orduerdiko kontua da!”. Hori baino gehiago ere bada, baina. “Jendeak uste du organoak ematea garrantzitsua goa dela, premia handi goa delakoan-edo, baina odola egunero behar den zerbait da. Pentsa zenbat ebakuntzatan behar izaten den!”.

Gaixotasunak pentsakera aldatu diola dio Urainek, eta horixe du irakaspen onena. Gaixoardian sekulako baxualdiak izan dituela esan du, eta une askotan bizitzako urterik “onenak edo behinik behin berezienak” galtzen ari zela uste izan duela. “Santantetan pasatu dut okerren. Plazatik gertu bizi naiz eta jaigiro hori sentitzea eta ni 17-18-19 urterekin etxean minez egotea oso gogorra egiten zitzaidan. Baina listo! Orain ez nago beste bat galtzeko”.

ODOL ATERATZEAK

MENDARO. MARTXOAK 16, OSTIRALA

Mendaron, gaur zortzi, martxoaren 16an, egingo dituzte odol ateratzeak, Ikastolan, eta antolatzaileek dei berezia egin diete herriko gazteei odola ateratzera joateko. 17:30etik 20:30era.

ELGOIBAR. MARTXOAK 23, OSTIRALA

Elgoibarren martxoaren 23an egingo dira odol ateratzeak, Odol Emaleek anbulategi ondoan duten lokalean, 18:30etik 20:30era.

“Musika janzkera aldatu arren, nire kantaera xuxurlatuari eusten diot”

► JABIER MUGURUZA KANTARIA

Sinüose kultur elkarteak antolatuta, martxoaren 11n, Jabier Muguruzaren kontzertua izango da Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, 19:00etan. *Leiho bat zabalik* disko berria aurkeztuko du eta Ander Mujika elgoibartarra izango du lagun. Disko honetan aldaketa handia egin du instrumentazioari dagokionez, akustikotik gitarra elektrikoa eta elementu elektronikoak lagun hartzera pasatu baita. Soinu berri hori izan dugu hizpide besteak beste Jabier Muguruzarekin.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ **Disko berria aurkeztuko duzu Elgoibarren eta zure lehengo kantuak entzuztera ohituta dagoenak doinu ezberdinak entzungo ditu. Zein da aldaketa?**

Estiloa ez da hain ezberdina, giroan edo janzkera musikalean egon da aldaketa. Orain arte, hogeitaka urtetan, janzkera musikal hori beti izan da akustikoa, elektrikoa ez dena, etxean egon daitekeen piano edo gitarra akustiko batena. Oraingoan aldaketa Ander Mujikaren gitarra elektrikoek ekarri didate, eta elektronika sartzeko asmoa ere banuenez, hori Zaragozako Javi Carasueñok egin digu.

♦ **‘Leiho bat zabalik’ da diskoaren izenburua. Zeri ireki diozu leihoa?**

Egile edo kulturgileari dagokion jarrera etengabe norbere buruari etengabe galderak egitea da, jarrera hortan mantentzea; ez ‘ondo nago eta kitto!’ esanda konformatzea. Beraz, nire buruari planteatu nion aldatzeko edo esperimentatzeko, lekuz aldatzeko gaitasun edo saiakera hori abian jartzea. Pentsatu nuen gustura eta eroso egon arren beste giro musikal batzuk jorratzen saiatu behar nuela. Ordurako “fitxatuak” nituen Ander Mujika Na-



Arg.: Jagoba Manterola

poka Iriatik eta Carasueño Tulsarekin egindako lan batetik. Eta pentsatu nuen: hauekin aurrera!’. Nire instinto edo senak esan zidan ondo funtziona zezakeela.

♦ **Esperimentazio horrekin aurrera eginda ondo funtzionatu al du?**

Bai ni orain oso kontent nago. Gainera a *Leiho bat zabalik* izendatua izan dela Musika Independentearen Sarietan Euskarazko diskorik onenaren atalean. Beraz, ondo funtzionatu dugun seinale.

♦ **Hainbeste urtean akustikoan aritu eta aldaketa hau egindakoan, pentatu duzu zein musika giroarekin aurrera egitea?**

Hori ez daukat erabakita, baina nahiko garbi daukat aldaketa honek gauza batzuk eman dizkidala. Orain arteko proposamen musikala, sonoritate aldetik, nahiko atsegina zen eta behar nuen zenbait momentutan Anderrek lortutako garraztasun hori, soinu gogorrago horiek eta nik hori ahotsarekin ezin nuen egin. Hori gitarra elektrikoak eman ziezadakeen eta uste dut lortu dugula. Bestalde,

Carasueñok egindako lan elektronikoak eman dizkigu soinu hetero batzuk, atmosfera oso bereziak. Kantu guztietan giro ezberdinak sortzen dira, eta entzulea beste lurralde batzuetara garraiatzen dute.

♦ **Doinuetan aldaketa, baina hitzetan kolaboratzaile bertsuak izan dituzu. Musika janzkera ezberdinak izan du eraginik hitzetan?**

Beraiek ez zekiten musika aldaketerena. Letra egileekin aspaldiko harremana daukat, eta komunikazio-haria hor zegoen arren, aurrez ez nien azalpen handirik eman. Nik letrak eskatzen ditut eta egindako lana pasatzen didatenean egin ditut konposizioak, eta gero reglistarekin, kasu honetan Ander Mujikarekin, elkartu eta pianoa joaz gitarrako moldaketak egiten ditugu. Azkeneko fase batean elektronika erantsi genion.

♦ **Aldaketa izan arren, norbere baitan beti gordetzen da aurrekoa. Oraingo lanak zer dauka zuretik?**

Aldaketa handia egon dela esaten du-

tenean, handi-handiak egitea oso zaila dela iruditzen zait. Horrelako fantasiak izaten ditugu, baina ez da hainbestekoa. Hor jarraitzen du nire konposatzeko estiloak eta nire abesteko moduak. Modu poetiko samarrean esaten dut entzuleari belarrira xuxurlatuko banio bezala kantatzen dudala; intimismoa; hitzen trataera... Nire gauza asko daude eta jarraitzaileek ere hala diote: "Honek Jabierren diskoa izaten jarraitzen du".

♦ **Entzuleek, beraz, gustura jaso dute lan berria.**

Momentuz Euskal Herrian eta Katalunian ibili gara, eta oso iritzi onak jasotzen ari gara; oso harrera ona izan du bai. Datorren astean Madrilera goaz, hurrengo hilabetean Parisera eta gauza hauek motiba dezakete publikoa ere. Nire gogotako bat da Euskal Herrian diskoa defendatzea, hori delako nire eremu naturala. Baina beti saiatzen naiz hemendik kanpo ere lana zabaltzen, garrantzitsua delako hori ere. Gurean aritu garenean entzule batzuk aitortu didate zer egin ote dudan kezka etorri direla emanaldietara, baina oso kritika onak jasotzen ari gara eta gustura gaude.

♦ **Diskoa aurkezten ari zara eta Ander Mujika musikari elgoibartarra daukazu bidelagun. Nolakoa da elkarlan hori?**

Benetan oso ona. Napoka Iriarekin

egin nuen kolaborazio bat orain dela bizpahiru urte eta orduan gustura aritu nintzen beraiekin. Horregatik "fitxatu" nuen, horrelakoetan arreta jartzen baitiugu interesatzen zaigunari, eta nik bere ikuspegi musikalaria erreparatu nio-lako orduan ere. Pertsonarekin nolabaiteko sintonia izateak ere garrantzia du zuzenekoan elkarrekin aritu behar gare-lako eta asko bidaiatu behar izaten du-gulako. Anderrekin, beraz, oso ondo. Gainera, oso lan ona egin du, jendeari asko gustatzen ari zaio bai zuzenean eta baita diskoan ere. Gainera, azpimarratu nahi dut Anderrek egiten duena ez dela soilik akorde batzuk joaz kantariari laguntzea. Musika giroa moldatuta, oso giro bereziak lortu ditu eta hori meritu handia da. Eta diot arriskua dagoelako jendeak soilik gitarrista bat ikus-tea akorde batzuk jotzen; baina ez da hori; beste dimentsio bat du kontuak.

♦ **Elgoibarko kontzertua diskoaren aurkezpena izango da, ezta?**

Hori da. Kontzertuaren ardatza disko berria izango da, baina beti saiatzen naiz atzera begiratzen, *Mazisi Okeita Denbelek* edo *Maite zaitut* moduko kantutak kantutak jo ezean jendea gogoz gelditzen delako. Zuzenekora etortzen dena ez da damutuko. Zuzenekoak badu xarma berezia. Ander eta biok arituko gara, eta jendea gustura sentituko da.

"Sotoan kontzertua ematea etxean jotzea da niretzat"

Ustekabean, baina era berean poztasunez eta ilusioz hartu zuen Ander Mujikak proiektu berrian parte hartzeko Jabier Muguruzak egin zion proposamena. Napoka Irian eta beste proiekturen batzutan jardun ondoren, gogoz dihardu honetan. "Jabier Muguruza beste bide ezberdin bat egindakoa zenez, ez nuen espero, baina gustura nabil".

Gainera, egitasmo honek hainbat ikuspegitik gauza ezberdin asko ikasteko aukera eman diola dio Mujikak. "Erronka izan da. Diskoko moldaketak nik egin ditut, eta orain arte horrelako lanak egin gabea nintzenez, sormen lanerako beste modu bat ezagutu dut, eta oso pozik nago".

Zuzeneko Elgoibarren egingo dute, eta orain arte gutxi izan direnez elkar ezagutzen ere ari dira. Diskoa lantzeko modua ere ez da oso ohikoa izan. Ander Elgoibarren, Jabier Irunen eta Carasueño Zaragozan egon direlako. "Gozatzen hasi gara, baina oraindik moldatzen gaude".

Elgoibarren jotzea, hala ere, berezia izango da beretzat, are gehiago sotoan izanda. "Elgoibarren, lagunak eta familiakoen aurrean jotzeak beti urduritu izan nau, baina polita da egiten ari naizen lan hori etxean aurkeztea. Sotoa beti izan da gure etxea. Sinüosek beti antolatuta dituzte kontzertuak han, beraz, hori da benetan etxean jotzea. Herriko Antzokian kontzertua ezberdina izango litzateke eta nik aukeran nahiago sotoan aritzea. Jabierren kontzertu intimoa egiteko ere Herriko Antzokia handi geldituko litzateke".





[BARREneko lantaldeak bat egin zuen atzo greba feministarekin, eta langile emakumezkook goizeko lanuztera batu ginen.
Emakumeok egiten ditugun lanen ikusezintasunaren erakusle izan nahi du orrialde honek.]




Motxaila asteburuan jai giroa izango da Mendaron bertso, kobako jai eta kantuekin



Motxailak da mendararren izengoitia eta azken urteotako ohiturari jarraituz, Motxaila Asteburua egingo dute barixakuan eta zapatuan, martxoaren 9an eta 10ean. Barixakuan, bertso saioa izango da San Agustinen, 22:00etan. Maialen Olazabalen esanetara arituko dira Amets Arzallus, Maialen Arzallus, Andoni Egaña eta Jone Uria bertsolariak. Zapatuan, berriz, goizean goiz aterako dira motxailak 9:00etan Gaztetxetik Aitzbeltzeko kobara. Han, antzerkia, poesia galoa, ipuinak, bertsoak, espedizioa, irrintzia eta kantua izango dira. Ondoren, txartela hartua dutenek gaztetxean bazkalduko dituzte tzatzikia, salmorejoa, paella eta motxaila-besoa. Bazkaloste eta gauean ez da musikarik faltako giroa alaitzeko. Txalaparta intro, Silvio eta Rodriguez eta Inozentio eta Jo ta ito mendaroko punk taldea ariko dira arratsaldean. Iluntzean, berriz, Agosti eta Barrenarekin trikipoteo maratoia Gaztetxetik abiatuta.

Sustrai emakumeen akordeoi taldeak bi kontzertu eskainiko ditu astebukaeran

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna izanik, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte horren harira. Musikari dagokionez, Elgoibarko Sustrai emakumeen akordeoi taldeak EAJk Bilboko Sabin Etxean egingo duen saioan hartuko du parte. Ekitaldi horrek emakumeak artean eta kulturean izan duen eragina agerian jartzea izango dute helburu. Bihar, martxoak 10, Elgoibarren eskainiko du kontzertua. Kultur Etxeko sotoan izango da 12:30ean eta 70. hamarkadako abestiak joko dituzte. Emakumeen hilabetearen baitako emanaldian bederatziko akordeoi jolek, bi teklistik eta zuzendariak hartuko dute parte.



'Azala erre' liburua aurkeztuko du Danele Sarriugartek

Martxoaren 13an, Donostiako Elkar liburu dendan, aurkeztuko du Danele Sarriugarte idazle elgoibartarrak 'Azala erre' lan berria. Sare sozialen sasoian, ikuskizunaren gizarte post-industrialean, bi artista, Miren eta Jon, eta artea ulertzeko modu bi jarri ditu talan liburuan. XXI. mendearen aurrean artistaren galderak agerian ipinita.

Familia antzerkiak asteburuan

Bi familia antzerki izango dira Mendaron eta Elgoibarren aste bukaeran. Zapatuan pailazoak arituko dira Mendaroko udaletxearen ondoan 17:00etan. Domekan, berriz, Anita Maravillas teatroak *Jon Braun* antzezlan eskainiko du Elgoibarren, Herriko Antzokian, 16:30ean.

Musika Eskolako taldeen kontzertuak

Inazio Bereziartua Musika Eskolak bi kontzertu iragarri ditu datorren astetarako. Astelehenean etxeko talde instrumentala arituko da 19:00etan auditoriumean. Barixakuan, ordu berean, Maalan banda eta saxofoi taldea arituko dira.

43 elgoibartarrek eta 13 mendarorrek bukatu dute inoizko Lilatoirik jendetsuena

inoizko jendetsuena izan da 29. Lilatoi lasterketa. Parekidetasuna aldarri eta "Itzaletik argira" lelopean, 5.218 emakumek amaitu zuten Donostiako kaleetan jokatatu zen bost kilometroko proba, tartean Elgoibarko eta Mendaroko 56 emakumek. Helmugara iristen lehen elgoibartarra Nerea Sanz izan zen (23:16). Lehen mendarorra, berriz, Lorea Cabello (20.09).



Lilatoian parte hartu zuten zenbait elgoibartar Donostian.

Lasterketa Lorea Ayala donostiarrak irabazi zuen, 18 minutu eta 7 segundoko denborarekin. Aldarria eta kirola uztartzen dituen Lilatoia egin zuten estreinako aldian, 1990ean, 150 emakumek hartu zuten parte. Urtetik urtera izenematea goraka doala diote antolatzaileek. Datuen bidez esanda, 2014an, 3.500 bat emakume atera ziren Lilatoian; 2015ean, 3.870; 2016an, 5.500; eta iaz, 5.780. Saiklkapenak eta argazkiak barren.eus webgunean.

Arkaitz Iruretak eta Javi Domingezek osatutako bikoteak hirugarren postua lortu du Altitoyn, beteranoetan

Mundu mailako eskiatzaileek parte hartu zuten aurreko asteburuan mendiko eskiko Open Altito-Ternua lasterketan, La Grande Course zirkuituaren barruan jokatu baita aurten. Elgoibarko sei eskiatzailek hartu zuten parte proban eta Arkaitz Irure-



tak eta Javi Dominguezek osatutako bikoteak lortu zuten emaitzarik onena. Saiklkapen nagusiko 31. postua lortu zuten, eta hirugarrena beteranoen artean. Postu bat atzerako saiklatu ziren Iñigo Lariz eta Igor Alzelai. Iker Leonardo-Imanol Garaizabal bikotea 68. postuan saiklatu zen. B. Ibilbidean lehiatu zen Andoni Gabilondo elgoibartarrek eta Unai Jauregi berriatuarrak osatutako bikotea, eta 61. postuan saiklatu ziren. Iñaki Lascurain elgoibartarra eta Edu Iñiguez de Heredia gasteiztarra 63. postuan saiklatu ziren.

Pilotari elgoibartarrek txapeladunorde Debarroko txapelketan



Lagunak Pilota Eskolako hiru pilotarik, Ibon Viñak, Peru Bereziartuk eta Iker Izagirik Debarroko Pilota Txapelketako alebinitako finala jokatu zuten, Oñatin. Arrasateko pilotarien aurka galdu zuten finala, eta ezin izan zuten iaz benjaminetan lortutako garai-pena errepikatu.

Ramon Garcia hirugarren Gaztela eta Leongo Itzulian



Master mailako txirindularientzako Gaztela eta Leongo Itzulia jokatu zuten martxoaren 3an eta 4an, eta saiklkapen nagusiko hirugarren postua, -eta bere kategoriako bigarrena-, eskuratu zituen Ramon Javier Garcia elgoibartarrek (Eibartrans-Gobike). Itzuliari hasiera eman zion erlojupeko etapen bigarren egin zuten Garcia. Gainerako bi etapetan ere aurreneko postuetan saiklatu zen, eta erregularitasun horri esker eskuratu zuten saiklkapen nagusiko hirugarren postua. Bigarrena ere ez zuten urruti, segundu bakarreko aldea atera baitzuen Jose Ignacio Mendezek. Karrantzako txirindulari Raul Portillok irabazi zuen itzulia.

Txapel guztiak etxera ekartzeko gutxi falta izan zaie egañatarrei



La Union elkarteak antolatuta, Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa jokatu zuten martxoaren 4an Arabako Zanbrana herrian dagoen 'El Castillo' izeneko ehiza-barrutian, eta egañatarrek izan ziren protagonista nagusiak. Emakumezkoetan eta beteranoetan gailendu ziren Leire eta Joxe Mari Egaña aita alabak. Leireren neba eta Joxe Mariaren semea den Arkaitz Egañak ere gertu izan zuen garaipena. Carlos Conde irabazlearen ehiza kopuru bera, -7 eper- aurkeztu bazituen ere, Conderentzat izan zen garaipena, lehenago aurkeztu zituelako. Ehiztariek atsedean hartuko dute orain, iraileko azken astean jokatuko baita zonaldeko ehiza txapelketa; eta, urrian Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak.

Pilota plazara aterako du Ikastolak, bihar



Elgoibar Ikastolak 21. Pilota Eguna antolatu du zapatarako (martxoak 10). Eguraldi ona izanez gero, Kalegoen Plazako frontoian egingo dute. Aldiz, eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian izango da. Elgoibar Ikastolako makina bat neska-mutilek hartu dute parte urtero ikastetxean antolatzen duten pilota txapelketan. Finalera sailkatzea lortu duten bikoteek jokatuko dituzte Pilota Eguneko finalak, jendaurrean. 6 eta 12 urte bitarteko umeei hartuko dute parte, eta 10:30etik aurrera hamabi partida jokatuko dituzte guztira, 12 tantotara.

Salentok mailaz igotzea lortu du matematikoki



Azken jardunaldian Ordiziari 33-25 irabazi ostean, Gipuzkoako Txapelketa Lehen Mailara igotzea lortu du Pizzeria Salento eskubaloitako taldeak, matematikoki, bi jardunaldiren faltan. Hamalau jardunaldi jokatu eta gero, sailkapeneko bigarren postuan dago Sanloko senior gizonetzkoen bigarren taldea, 24 punturekin. Bi puntu gehiago dituzte, Munttarpe Eskubaloia taldeak, eta elgoibartarrek baino lau puntu gutxiago hirugarren sailkatuak, Saiekok.

Mendi-eski irteera Pirinioetara

Morkaiko mendi taldeak mendi-eski irteera antolatu du Pirinioetara martxoaren 25 eta 25erako. Frantziako La Glereko aterpetxera joango dira eta eguraldia eta elur baldintzak egokiak badira Neouvielleko parke nazionalan barrena ibiliko dira. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a izango da.

Kadeteen txirrindulari lasterketa, zapatuan

Elgoibarko txirrindulari eskolak antolatuta, kadete mailako txirrindularientzako 26. Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari lasterketa jokatuko dute zapatuan, martxoaren 10ean. Mintxetatik irtengo dira txirrindulariak, 11:00etan, eta 52 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Bada berrikuntza bat, helmuga Mintxeta gainean egongo baita.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 653 160 233

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 631 887 341

Etxebizitzak edo atariak garbitzen zein umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 627 819 217

Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, eta adinekoak zaintzen ere egingo nuke lan, orduka, egun erdiz zein asteburuetan. ☎ 652 668 877

Tabernak garbitzen edo adinekoak zaintzen (orduka nahiz barne langile) lan egiteko prest. Berehala hasteko gertu. ☎ 632 896 116

Adinekoak zaintzen eta etxe garbiketan lan egiteko gertu. Adinekoen zaintzako prestakuntza ikastaroa egiten ari naiz. ☎ 659 578 601

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka, asteburuetan... ☎ 674 579 736

Adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta garbiketan lan egiteko gertu. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 626 407 923

Garbiketan, adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta asteburuetan interno lan egiteko gertu.

☎ 631 506 763

Baserriko lanetan, sukalde laguntzaile, adinekoak zaintzen eta obretan lan egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 631 680 819

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta gidabaimena ditut.

☎ 688 712 075

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Arratsaldeetan eta asteburuetan. Orduka.

☎ 612 493 242

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Arratsaldez.

☎ 638 338 816

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest interna moduan. ☎ 631 406 177

Umeak edo nagusiak zainduko nituzke edota garbiketa lanak egin. Orduka, nahiz asteburuetan. Ospitaletan gauak pasatzeko ere prest nago.

☎ 632 449 742

Adinekoak zaintzen edo garbiketalanetan aritzeko prest. Orduka. Asteburuetan barne.

☎ 629 872 270

Adinekoak zaintzen eta paseatzen laguntzen egingo nuke lan. ☎ 699 535 728

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko moduan naiz. Etxeko langile moduan nahiz orduka. Etxez etxeko laguntzaile aritzeko prestakuntza eta ziurtagiria daukat.

☎ 638 857 100

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Orduka. ☎ 651 473 142

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan.. ☎ 943 74 88 99 / 685 724 861

Eskaintzak

Pertsona bat behar da, goizez, bi ume zaintzeko.

☎ 660 504 445

ETXEBIZITZAK.....

Lau gelako etxebizitza alokagai Elgoibarko erdigunean, San Inazio kalean. ☎ 615 781 629

Etxebizitza hartuko nuke alokagai Elgoibarren.

☎ 638 338 816

GARAJEAK.....

Santa Ana kaleko 2. zenbakian garaia salgai. ☎ 658 741 463

Garaie itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. Ate automatizatu dauka eta 14 metro koadroko azalera.

☎ 648 012 181

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasunaren Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hainbat estolderia konponketa egin behar dira lokal huts batean. Lanak ez dira egin orain dagoen estaldura-material berbera ez delako aurkitzen eta lokalaren jabearekin adostasunik ez dagoelako, lokaleko lur guztia aldatzeko eskatu baitu. Denbora tarte horretan jabeak lokala alokairuan izan du eta maizterrak bainugela bateko instalazioa aldatu duenez, ordaintzeko eskatu du. Jakin nahi nuke ea komunitateak derrigorrez lokaleko estaldura material guztia aldatu behar duen, eta maizterrak egin duen bainugela ordaindu behar dugun gune honetan hainbat lan egin behar zirela jakinik.

Arazoa izango da elementu komunetan konponketak egiten badira eta komunitateak jabetza pribatuko obretan parte hartzen badu, komunitatea estetika kalte guztiak ordaintzera derrigortuta badago.

Nire ustez, konponketa eta kalteen artean estetikoak badaude eta hauek ezbeharrek edo kalteen konponketak sortutakoak badira, egin beharreko lanetan erabiliko den estaldura materiala aurrez zegoenaren antzerakoa izan behar da. Beraz, komunitatea derrigortuta egongo da lokal guztiko materiala aldatzera, nahiz eta egoera negargarrian egon, lurra harrotuta edo hau material ezberdinekin instalatu itxurarekin eta materialekin bat etorri arren, hau da, oinarritzko ezaugarriekin eta merke eginda.

Aholkua: Komunitateak ez du derrigorrez aldatu behar maizterrak gerora egindako bainugela, izan ere, honek bazezkie gerora lanak egin behar zirela gune horretan, eta hala ere, ez zuen horren ardurarik hartu.

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, martxoaren 7an 9 urte bete zenituelako. Aitaren eta familiakoen partetik.



Zorionak, **Bixen!** Igan-dean 10 urte! Aizean utzi duzu berriz ere Oxell! Ondo pasa.



Zorionak, **Maite**, martxoaren 8an 7 urte bete zenituelako. Musu handi bat etxeko denon partetik!



Zorionak, **Mikel**, zure 9. urtebetetzean. Musu potolo bat denon partetik.



Zorionak, **Ariane**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Musu asko familiako guztien partetik.



Zorionak, **Anike**, zure hirugarren urtebetetzean. Musu handi bat familiako denon partetik!



Zorionak, **Mara**, atzo 3 urte bete zenituelako. Musuak gurasoan, aittitta-amamen eta landerren partetik.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko, 49 -1 Tel: 943 741 189

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

VOGUE
VOGUE BETAURREKO OSOA
Zatoz probatzera!
Galdetu baldintzak!
89€tik hasita
P.V.P. gomendatua

49"

SAMSUNG LED49" UE49MU6405UXXC
4K ULTRA HD
SMART TV
HDR
1500HZ.PQI
759€ - 60€ (renove deskontua) = 699€

699€ - 100€ (renove deskontua) = 599€

COMBI SAMSUNG RB37J5325SS/EF
A++, Altzairu herdoigailza
Hatz marka kontrakoa
387 LITRO
200,6 X 59,5 X 67,5 cm

BOSCH SMS25AW05E ONTZI-GARBIGAILUA
A++
12 zerbitzu
5 programa
Ecosilence motorra
459€ - 80€ (renove deskontua) = 379€

MILAR BIRE
Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es
Martxoaren 1etik 20ra
RENOVE MILARREN!
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

9 BARIKAKUA

20:30 (euskaraz)-22:30 (gaztelaniaz) Antzerkia: *Oxido. Umore garratza*. Konpainia: Pez Limbo. Elgoibarko Kultur Etxean.

10 ZAPATUA

09:30 Emakumeentzako autodefentsa-tailerra. Olaizaga kiroldogian.

10:00 Kiribil sukaldaritza-tailerra familian. Elgoibarko Ludotekan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

10:30 XXI. Pilota Eguna. Kalegoen plazako frontoian edo Ikastolako frontoian (eguraldiaren arabera). Antolatzailea: Elgoibar Ikastola.

12:30 Soinu kontzertua: Sustrai, emakumeen akordeoi taldea. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.

15:00 Emakumeen bazkaria eta dantza saioa. Karakate jatetxean.

17:00 Antzerkia. Mendaroko udal-tertxe ondoan.

11 DOMEKA

11:00 Kadete mailako txirrindulari lasterketa Mintxetatik abiatuta. Antolatzailea Elgoibarko Lagun Taldea.

11:00-14:00 Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

16:00 Berdintasun ginkana. Zubigazte taldea. Mendaroko kaleetan.

16:30 Familia antzerkia: *Jon Braun*. Anita Maravillas Teatroa. Elgoibarko Herriko Antzokian.

19:00 Kontzertua: Jabier Muguruza. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

12 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako tailerra: *Garapen pertsonala irakurketaren bitartez*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Go-tzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 Kontzertua: Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde instrumentala. Musika Eskolako auditoriumean.

19:00 Erraketistak erakusketaren inaugurazioa. Olaizaga Kiroldogiko kafetegian.

13 MARTITZENA

19:00 Dokumentala eta mahai-ingurua: *Emakume erraketistak*. Musika Eskolan.

15 EGUENA

18:30 Ikastaroa: *Gure zuhaitzak landatzen*. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

16 BARIKAKUA

18:30 Erakusketa: *Begia zulotik*. Hasier Etxeberriaren oroimenez. Aitor Etxeberria, Edu Arrillaga eta Joxe Ramon Elortza. Erretratuak, koadroak, eskulturak eta Hasier Etxeberriaren testuak. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Kontzertua: Inazio Bereziartua Musika Eskolako banda eta saxofoi taldea. Maalako parkean.

21:30 Zine foruma: *A las cinco de la tarde*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

MOTXAILA EGUNA

Martxoak 9 eta 10

9 BARIKAKUA

22:00 Bertso saioa: Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Andoni Egaña eta Jone Uria. Gai-jartzailea: Maialen Olazabal. Mendaroko San Agustinen.

10 ZAPATUA

09:30 Motxaila Eguna: Gaztetxetik irteera.

11:00 Agian antzerkia, poesia galoa, ipuinak, bertsoak, espedizioa, irrintzia eta kantua. Aitzbeltzeko koban.

14:00 Motxaila Eguneko bazkaria. Gaztetxean.

Bazkalostean, Txalaparta intro, Silvio eta Rodriguez, Inoizentzio, Jo ta ito.

Iluntzean, Trikipoteo maratoia. Agosti eta Barrenarekin. Mendaroko Gaztetxean hasita.

Zinea (Herriko antzokian)

'El cuaderno de Sara'



10 Zapatua, 19:00/22:15

11 Domeka, 19:00

12 Astelehena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
9 BARIXAKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA	12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA	15 EGUENA	16 BARIXAKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Oruesagasti	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gaez: 22:00-09:00
La Fuente
Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Otsailen hildakoak

. **Maria Josefa Unzueta Iriondo**

95 urte, otsailak 5

. **Jose Miguel Azkoitia Artetxe**

57 urte, otsailak 6

. **Mari Luisa Suinaga Azkarate**

88 urte, otsailak 10

. **Pablo Alvarez Arruabarrena**

91 urte, otsailak 18

. **Amalia Ruiz Poveda Rodriguez**

90 urte, otsailak 18

. **Lorenzo Esnaola Larreategi**

96 urte, otsailak 20

. **Mikel Gorostiza Etxaniz**

94 urte, otsailak 22

. **Pedro Arzalluz Egia**

90 urte, otsailak 24



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.


Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.

Erietxe zentruetan zerbitzuak.




1982

Garai batekin alderatuta, manifestazio gutxiago egiten dira herrietan. Lehen, jende ugari elkartu ohi zen herriko kaleetan gai batzuen alde eta besteen aurka protesta egiteko. Izaskun Estibaritzek ekarritako argazkian zinta isolatzailearekin egindako pankartaren atzean agertzen dira herritarak San Frantzisko kalean abortuaren alde egindako manifestazioan. Antisorgailuen alde ere egin zen besteren bat. Aita Santua Loiolara etorri zenean Elgoibartik pasatu zen, eta izan zen protestarik orduan ere. Garai hartan besteak beste feministek bultzatutako saioak ere egiten ziren eta Pilar ikastetxean, esaterako, jardunaldi feministak egin zituzten. Emakumeen eskubideak aldarrikatzen zituzten emakumeak asko ziren eta gerora hasi ziren talde eta elkarteak sortzen. Gaur egun Haizea taldea denari ere *Amas de casa* izena eman zioten, taldeak sortzeko eskubideak mugatuak zirelako. Argazkian, besteak beste honakoak agertzen dira ezkerretik hasita: Elena Zuazubizkar, Mila Tudanca, Lucia Casquero, Gemma Jaio, Belen Bernedo eta Paula Pelaz.



Bittori San Martin Iriondo

2018ko martxoaren 7an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA

Iñaki Argarate Iriondo

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

***Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean***

Zure lagunak



I. URTEURRENA

Juan Ansola Aginaga

2017ko martxoaren 7an hil zen, 73 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
martxoaren 10ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Justo Arriola Zubiaurre

2017ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
martxoaren 10ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako
doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.*** Etxekoak



San Bartolome,¹

E L G O I B A R

2 eta 3 logelako
4 ETXEBIZITZA
trastelekuarekin
eta lokal
komertziala

**ERAIKUNTZA
BERRIA**

Sustatzaillea

ISGAInmuebles s.a.

Kudeatzailea

gasdas
gestión de
promociones
de viviendas

Finanziatzailea

LABORAL
kutxa

Saltzailea

A Arbeloa
inmobiliaria

Informazioa eta Salmentak

T. 688 72 41 22

